

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

425/2014 Foru Agindua, irailaren 30ekoa, behin betiko onartzen duena Mañuetako udalerriko planeamenduaren arau subsidiarioak aldatzeko espedientea, OR-4ko merkataritza erabileraren ingurukoa

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Mañuetako Udalak, 2014ko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedienteari, OR-4n merkataritza erabilera sartzearen ingurukoari, baita espediente hori jendaurrean jartzea ere. Halaxe egin zen iragarki egokiak argitaratuz ALHAOren 51. zenbakian, 2014ko maiatzaren 9koan, eta 2014ko maiatzaren 2ko "El Correo" egunkarian.

Bigarrena. Jendaurreko informazio aldiaren ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2014ko ekainaren 25ean egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Mañuetako Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onarpena jaso zezan (Arabako Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorreko sarrera data, 2014ko uztailaren 8koa).

Laugarrena. Era berean, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko, espediente horren gaineko txostena eman zuen Arabako Hirigintza Batzordeak 5/2014 bilkuran, irailaren 24koan.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Espedientearen xedea OR-4k araututako zonan (Mañuetako upeltegien zonan) daitezkeen erabileren artean merkataritza erabilera sartzea da, gaur egun baimendurik ez baitago.

Aldaketa hori honela arrazoitzen da: upeltegi zaharren eremua biziberritu behar da, upeltegi horien erabilerarik ezak higiezinetakoa batzuen narriadura ekarri baitu berekin, merkataritza erabilerari hori "bizitegi edo ostatu eraikineko beheko solairuan eta eraikin eskusiboan" baimenduz, aldaketa puntualaren testuak hitzez hitz dioen bezalaxe.

Bigarrena. OR-4ren barruan merkataritza erabilera sartzea udalak planeamendurako ahalmena erabiltzearen barruan dago. Beraz, ez dago inolako eragozpenik aldaketa onartzeko.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Mañuetako udalerriko planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, OR-4ko merkataritza erabileraren ingurukoa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 29a

Ingurumen eta Hirigintza saileko diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO

213. ARTIKULUA aldatzea.**OR4 ORDENANTZA**

Upeltegien zona

1. Xedea:

Mañuetan dauden upeltegien zonako hiri lurzoruaren antolamendua da. Zona hori Kalifikazio Orokorra-Ordenantzak planoan OR4 bezala mugaturik dago.

2. Baimendutako erabilera orokorrak:

- a) Berezkoa: Ardogile upeltegiak
- b) Osagarriak: Jabari eta erabilera publikoko bideak

3. Eraikuntza esku-hartzeak:

Eremu honetan, eta artikulua honetan adierazten diren baldintzekin, ondoko eraikuntza esku-hartze hauek baimenduko dira:

- Oin berrikoak
- Aldaketak.
- Eraisketak

4. Baimendutako erabilera xehatuak:

a) Baimendutako erabilera berezko eta bateragarriak:

- Eraikuntza erabilerak:
 - Berezko erabilera:
 - Ardogile upeltegiak
 - Erabilera bateragarriak:
 - Familia bakarreko etxebizitzak
 - Txokoak
 - Sasoiko langileentzako lokalak
 - Artisautza eta artisau edo arte lanbideak
 - Merkataritzaz bestelako biltegiak, nekazaritza ustiapen batekin lotuak.
 - Etxean kontsumitzeko produktuen konponketa
 - Aparkalekuak.
 - Oinarrizko azpiegiturak
 - Merkataritza: Bizitegi edo ostatu eraikineko beheko solairuan eta eraikin eskusiboan
- Eraikuntzaz bestelako erabilerak:
 - Nekazaritza eta eremu libreak